Koloretan errebelatu eta positibatzea (eta II)

Itziar Nogeras*

Pelikula positibatzeko zer behar den eta zer egin behar den ikusiko dugu oraingo honetan eta iragazketa-sistemaren arabera dauden bi metodoak (metodo substraktiboa eta aditiboa, alegia) ezagutuko ditugu, nahiz eta lehenean zentratuko garen.

POSITIBATZEKO TRESNAK

Koloretarako laborategiari erantsi behar zaiona ikus dezakegu irudian.



Kolore-burua: Iragazki-kaxatxoen sistema baino garestiago izan arren, erosoagoa da. Dialen bidez argiaren bidean dauden iragazki degradatuak kontrolatzen dira. Iragazketaren zenbakiek CP iragazketa-eskalari dagokie. Y horia, M magenta eta C cyana da.

Kolore-aztertzailea: Negatibo bakoitzak behar duen esposizio--denbora eta iragazketa jakiteko erabiltzen da. Irudiaren zati adierazgarri bat aukeratzen da horretarako.

Tentsio-egonkortzailea: Tresna honek emaitza honda lezaketeen handigailuaren argiak izan litzazkeen intentsitate eta kolore-tenperaturaren gora-beherak saihesten ditu.

Handigailua: Zuri-beltzerakoak balio du, baina iragazkientzako gailua erantsi behar zaio. Bi mota nagusi daude.
Bata, kolore-burua da eta horrek dituen dialen bidez kontrolatzen da iragazketa. Bestea, kaxatxo bat da eta bertan behar diren iragazkiak sartzen dira.

PAPERA

Koloretako paper gehienak kontraste-maila bakarrekoak eta hiru azalera-mota desberdinekoak dira. Denak RC dira eta airean lehortu behar dira. Pakete bakoitzak lote-zenbakia eta oinarrizko iragazketa adierazita dakartza. Segurtasunezko argi laranja ilunpean erabil badaiteke ere, jende gehienak erabateko iluntasunean ibiltzen du.

Handigailuan negatiboa positibatzeko bi era daude: metodo "aditiboa" eta metodo "substraktiboa".

Lehenean, hirutan jarri behar da papera argitan iragazki gorri, urdin eta berde banatan zehar. Kolorearen oreka esposizio bakoitzeko denboraren bitartez kontrolatzen da (horiek horrela, kopiaren kolore berdea emendatzeko adibidez, iragazki berdearen bidezko esposizioari denbora handiagotu eta urdin eta gorriarenak txikiagotu egin beharko dira). Sistema merkea baina motela da eta estaltzea eta aldaketa lokalak egitea oso zaila da.

Bigarrenean handigailuaren argia "tindatzen" duten dentsitate desberdineko iragazki hori, magenta eta cyanak erabiltzen dira. Era horretara, paperera iristen diren gorri, urdin eta berdeak esposizio bakar baten bidez kontrolatzen dira. Irudia kontrolatzea errazagoa da eta sistema azkarragoa da. Horretantxe zentratuko gara, hain zuen, ondorengo lerrootan.

ESPOSIZIOA ETA IRAGAZKETA APROBA-ZERRENDAK

Koloretan positibatzeko koxka emaitzaren edo kopiaren dentsitatea eta kolorearen oreka zehazten duten esposizio-denbora eta iragazketa neurtzen trebetasuna lortzean datza. Kopia bakoitzarekin errepikatu beharreko prozesua da hori eta nekez topatuko dugu iragazketarik behar ez duen negatiborik.
Beraz, negatibo bakoitzarekin bi aproba egin behar dira, bata esposizioarena eta iragazketarena bestea.
Aproba-zerrendak egiteko irudiko pausoak segitu behar dira.

Irudia oholean (edo marginatzailean) enkoadratu eta enfokatu ondoren, diafragma pauso bat itxi eta...



1.- Egoki iruditzen zaigun iragazketa jarri (fabrikatzaileak adierazitakoa edo aztertzailearen bidez neurtutakoa). Ilunpetan paper zati bat jarri marginatzaileko irudiaren zati adierazgarrienean.



2.- Lauzpabost denbora desberdineko (5, 10, 20, eta 25 segundokoak, adibidez) aproba-zerrenda egin kartoi beltz batez estaliz papera. Hori errebelatutakoan (ondoren azalduko dugu nola), esposizio--denbora egokiena hautatu.



3.- Esposizio-denboraren aproba-zerrenda egin ondoren, iragazketarena egin behar da. Horretarako, beste paper bat hartu eta estaltzeko laurden bat moztuta duen kartulina beltza erabili. Lehen aproba-zerrendaren arabera berriro ere iragazketa kalkulatu.



4.- Lau esposizio desberdin egin, kartoiarekin paperaren zati desberdinak estaliz eta agerian utziz. Esposizio bakoitzean iragazketa aldatu eta esposizioa doitu (iragazketa handiagotuz gero, esposizioa luzatu egin behar da).

ARGAZKILARITZA

Aproba-zerrenda horiek, aurrerago ikusiko dugun bezala, errebelatu egin behar dira eta esposizio eta iragazketa egokia ote den honela aztertzen da:

Esposizioa:
Zuri-beltzekoa bailitzan aztertu behar da kopia, emaitzaren dentsitatea soilik begiratuz.
Denbora egokia duen zatian tonu-sorta zabala azaldu behar du eta bai argiek eta bai itzalek xehetasunak azaldu behar dituzte.
Iragazketa aurrikus ahal izateko lagina ere bada zerrenda hori.

Iragazketa:
Ez da inongo kolorerik nagusitu behar. Nagusitu den kolorea desagertzeko, kolore horren beraren iragazketa emendatu behar da. Era guztietara, "dentsitate neutroa" saihestu egin behar da. Hori hiru koloretako iragazkiak aldi berean erabiliz gertatzen da eta esposizio-denbora alferrik handiagotu beharra besterik ez dakar.
Argi konstantepean aztertu behar dira kopiak.

KOPIAK ERREBELATZEKO ERA

Koloretan errebelatzeko bainuak tenperatura altuetan eta oso errore-margina txikiz erabiltzen dira. Denbora, tenperatura eta eraginaldien gainean oso erne egon eta oso zehatzak izan behar dugu, produktuak ez kontaminatzeko kontuz ibiltzeaz gain. Upelatxoetan ere lan egin badaiteke ere, errebelatzeko danborraz baliatzea da praktikoena. Hasi aurretik, erabili beharreko prozesua paperaren markarekin bat datorren ikusi eta bainuak argibideen arabera prestatu eta etiketadun botiletan sartu behar dira. Errebelatzeko danborraren upelatxoko urak 33º C-tan egon behar du. Ondoren:

1.- Gomazko eskularruak jantzita, dosifikatzeko ontzietan isuri disoluzioak. Tenperatura begiratu eta ur hotza ala beroa botatzen joan, produktuak behar duten tenperaturara iritsi arte.

2.- Danborra atera, ireki eta barrendik lehorra dagoela ziurtatu. Eskularruak kendu, argia itzali, esposizioa egin handigailuan eta papera barruan sartu, emultsioa barnealdera begira duela.

3.- Hiru bainuekin (errebelatzaile, zuritzaile/finkatzaile eta egonkortzailearekin) pauso berak ematen dira. (Kontutan izan hiru horiek direla oinarrizkoak; baina prozesu bakoitzak bere bereizitasunak dituenez, argibideak irakurri behar dira arretaz denborak eta etapak zehatz-mehatz jakiteko). Erlojua prest eduki, danborra ur-bainuan jarri, eskularruak jantzi eta tenperatura begiratu egin behar da.
Ur hotza ala beroa bota disoluzioak tenperatura egokia izan arte. Danborra uniformeki biratu eta dagokion disoluzio edo bainua inbutuan barrena bota.
Erlojua martxan ipini danborra biratzeaz utzi gabe. Zenbait danbor kopia bertan sartu baino lehen urez berotu egin behar izaten dira. Errebelatzaile kromogeneoaren tenperatura da kritikoena.

4.- Etapa bakoitza amaitu baino 15 bat minutu lehenago danborra hustutzen hasi.
Errebelatzaile guztiak behin erabili eta bota egiten dira. Beste bainuak, zenbaitetan bizpahirutarako balio izaten dute eta orduan, beren ontzietan gorde behar dira atzera.

5.- Danborra ireki, eskularruak erantsi eta kopia atera. Kopiari argazki-paper lehortzailez kendu ura.
Ez ahaztu danborra garbitu eta ondo lehortzeaz hurrengorako.

6.- Bukatzeko, kopia ondo garbitu behar da ur berotan, gomendatutako denboran zehar ura minutu erdiro aldatuz.
Denbora pasatutakoan, upeltxoa hustu eta egonkortzailea bota, dagokion denboran edukiz.

7.- Paperari soberako ura ondo kendu eta lehortzen jarri.

1


2

3


4

5

POSITIBATZE-AKATSAK

AKATSA	ZERGATIA
Marra hori edo marroiak	Argia sartu da laborategian.
Belo cyan edo urdina	Esposizio-garaian segurtasunezko argia piztuta zegoen.
Orbainak	Kontaminazio kimikoa (errebelatzaileak zuritzailean orbain cyanak edota marra cyan edo magentak sortzen ditu, zuritzailez edo finkatzailez kontaminatutako egonkortzaileak orbain horiak sortzen ditu).
Hori indargeak	Zuritze/finkatze ahula edo denbora eskasa.
Kolore indargea	Iragazkiak zaharkituta daude (berri batzuekin konparatu paper zuri batean).
Kolore-desberdintasuna	Eragite eskasa, disoluzio-kantitate gutxiegi edo papera emultsioa kanpoaldera sartuta.
Kolore ez-egonkorra	Handigailuaren bonbila berria bada, ordubete inguru piztuta eduki kolore-tenperatura egonkorra lor dezan.

Lehen artikulu hura argitaratu genuenetik, irakurle, ia bi urte iragan dira. Zehatzago, 21 ale. Argazkilaritzari buruzko oinarrizko ikastaro baten materiala jorratu dugu alez ale, irudiz irudi. Zaletasuna hedatzen eta zuen argazkiak hobetzen lagundu nahi izan dizue bilduma honek. Hala bis aurrerantzean ere.

* ZETIAZ - Elhuyar



KOPIAK ETA DIAPOSITIBAK

Behin baino gehiagotan esana dugu erabili dugun pelikula-motak ez duela beste formetarako bidea ixten: diapositibak eta koloretako zein zuri-beltzeko kopiak egin daitezke bai negatiboetatik bai diapositibetatik, nahiz eta kalitatea pixka bat galtzen duen. Horixe da ondoko eskeman azaldu nahi dizueguna.

KOLORETAKO DIAPOSITIBAK
Negatiboetatik diapositibak egiten dira, paperarena bezalakoa den emultsioa duen pelikulan positibatuz negatibo horiek, ukipenez zein handiagotuz eta iragazketa-teknika berbera erabilita.

ZURI-BELTZEKO KOPIAK
Koloretako negatiboetatik abiatuta, paper pankromatiko zein normalaren bidez lortzen dira zuri-beltzeko kopiak. Diapositibetatik abiatuta, internegatiboa egin behar da (zuri-beltzekoa eta pelikula motelean) erreproduzituz edo ukipenez egiten da, ondoren positibatu egiten delarik.

KOLORETAKO KOPIAK
Diapositibetatik koloreko kopiak bi eratara egin daitezke: paper bihurgarriaren gainean edota pelikula negatiboan internegatiboa eginez (hau ondoren, era normalean positibatzen da).